


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**USANDIZAGA 20****Ramon Cortazar, 1932.****Deskribapena**

Mehelin arteko eraikina, beheko solairua eta sei goiko solairu dituena, azkena atzeraemana. Harlangaitz hormako fatxada, emokadura harrizko estaldurarekin konbinatzen duena. Hormigoizko begiratokiak txandakako baetan. Beheko oineko pilastrak, harriz estaliak (jatorrizko estaldura irizpide unitarioaz ordezkatu da) eta ateburuaren azpian kapitel entokatuekin koroatuak. Jatorrizko proiektu komuna Kolon 23 eta Migel Imaz 10arekin, haiekin esku hartzeko unitate bat osatuz.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena

A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.

C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk

- Migel Imaz 10–Usandizaga 20–Kolon pasealekua 23 esku hartzeko unitatearen barruan egotearen ondoriozkoak.
- Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, hala badagokio.